



# ARATOSTEAK EIBARREN

## kartel lehiaketaren oinarriak

Eibarko Udalaren Kultura Batzordeak 2020 Aratostetarako kartelaren lehiaketa deialdia egiten du honako oinarri hauek argitara emanez:

**Derrigorrezko testua: ARATOSTEAK EIBARREN**

**Gainera deialdiaren urtea azaldu beharko da (2020).**

**Gaia: norberaren aukeran.**

**Kolorea: norberaren aukerakoa.**

**Neurriak: 70x50 zm.**

**Lanak aurkezteko formatua:**

- euskarri gogor baten gainean, edo
- formatu digitalizatu batean (JPG formatuan, 300 ppp-ko bereizmenarekin).

Emailerik ez da jasoko lanik.

**Lanak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 2tik 17ra izango da, 14:30ra arte.**

**Lehiaketan izena emateko eta lanak aurkezteko bideak:**

- **Elektronikoki:** [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus). Kartela formatu digitalean erantsi beharko da. 15 urtetik gorako kasuan, NANA formatu digitalean erantsi beharko da.
- **Presentzialki:** PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa. Kartela formatu digitalean ala euskarri gogor baten gainean aurkeztu beharko da. 15 urtetik gorako kasuan, NANA ere aurkeztu beharko da PEGORAn digitalizatu dezaten.
- **Postaz:** PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa. Untzaga plaza 1, 20.600 Eibar (Gipuzkoa). helbidera ondorengoak bidali: kartela formatu digitalean ala euskarri gogor baten gainean, izena ematerako orduan erraztu beharreko datuak (lema, adin-tartea, egilearen izen-abizenak, adina, bizilekua, telefonoa eta e-maila) jasotzen dituen dokumentua, eta 15 urtetik gorako kasuan, NANaren fotokopia.

Kartelak lehiaketan aurkeztuko dira. Izena ematerako orduan (elektronikoki ala presentzialki PEGORAn), egileak ondorengo datuak erraztu beharko ditu:

- Kartelaren lema.
- Adin-tartea: 10 urte arte, 11 eta 14 urte bitartekoa, ala 15 urtetik gorakoa.
- Egilearen izen-abizenak.
- Egilearen adina.
- Egilearen bizilekua.
- Egilearen telefonoa eta e-maila.

Lehiaketa honetan ezin izango dute parte hartu, aurreko kartel-lehiaketetan (Aratosteak, Sanjuanak, Sanandresak) bost aldiz edo gehiagotan sarituak izan badira.

**Saria 600 eurotakoa izango da. 10 urte arte, eta 11 eta 14 bitartekoentzat bi sari berezi izango dira (dirurik ez).**

Lehiaketan irabazlerik ez egotea ere gerta liteke.

**Epai-mahaiak 2020ko urtarrilaren 21ean emango du ezagutzera bere erabakia eta atzeraezina izango da.**

Epai-mahaikideak nortzuk diren erabakia ematen den egunean jakinaraziko da.

Epai-mahaiak, oinarri hauek irakurtzerakoan sor daitezkeen zalantzak bere kabuz irtenbideratzeko ahalmena du.

Kartel saritua Udalaren esku geratuko da. Udalak, kartela argitara emateko eskubidea bere gain hartzen du.

Saririk jaso ez duten originalak Euskara-Kultura Sailean har daitezke epai-mahaiak bildu eta hurrengo 30 egunen barruan.

Lehiaketan kartel originalak aurkezten dituenak, oinarri hauek diotena ontzat ematen du.